



Idiazabalen, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hamalauan.

ELKARTUTA

Alde batetik, **IORITZ IMAZ BAZTARRIKA** jauna, Idiazabalgo Udaleko Alkate Lehendakaria.

Bestetik, **MATIAS ARANBURU ELORZA** jauna, 72.426.689-B NAN zenbakiduna, Idiazabalgo udalerriko Iparra kalea 11n, 1. solairuan (ezk) helbideratua, **IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**ren izenean eta ordez diharduena.

ARI DIRA

IORITZ IMAZ BAZTARRIKA jauna, Idiazabalgo Udalaren izenean, dokumentu hau sinatzeko berariaz baimenduta, Idiazabalgo Udalbatzak 2016ko abenduaren 23an egindako ezohiko bileraren ondorioz (2017ko Aurrekontua onartu zuena).

MATIAS ARANBURU ELORZA, **IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**ren izenean eta ordezkartizan -IFZ: G-20306049 zenbakiduna eta Idiazabalgo udalerriko Plaza Nagusian (z/g) helbideratua.

Parte-hartzaileek agiri hau sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta hala, hau

ADIERAZTEN DUTE

Mendiko lasterketak kirol diziplina bat dira eta lur maldatsuetan oinez eta denbora labur erabiltzen egin daitezkeen lasterketak dira. Euskal Mendizale federazioak mendiko lasterketa horien lehiaketa ofizialak antolatzen ditu. Horretarako, lehiaketa ofizialetarako baliogarri izan daitezkeen probak antolatzen ditu.

IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA du xede kirol jarduerak antolatzea eta kirol proiektuak bere kabuz edota Udalarekin elkarlanean. 2014tik aurrera antolatzen du hainbat erakunde pribaturen babesarekin honako mendiko lasterketa hau: **AXARI TRAIL mendiko lasterketa-Mikel Garmendia memoriala**. Euskal Mendizale Federazioak sartu ohi du lasterketa hori, proba ofizial bezala, mendiko lasterketen Euskal Herriko Koparen txapelketan.

Idiazabalgo Udalak interesa du goi mailako kirol- probak Idiazabalgo udalerrian antolatzen laguntzeko, horien artean, mendiko lasterketak. Ildo horetatik, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikulua xedatutakoaren arabera, Udal eskumen propioa da: "19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea".

IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA eta Idiazabalgo Udalak 2017ko otsailaren 2an sinatu zuten hitzarmena, zeinen bidez Idiazabalgo Udalak **IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA**ri HOGEITA HAMASEI MILA EUROko (36.000 €) diru laguntza ematen zion kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko.

Mendiko lasterketek, batez ere, Euskal Herriko Mendiko Lasterketen Koparen proba ofizialak direnean, erakartzen dituzte kirolari eta bisitari mordo bat; hortaz, udalerrian antolakuntza egokia



izateko hainbat ekintza eta jarduerak sustatzeko Idiazabalgo Udalak komenigarritzat jotzen du **IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA**ri LAU MILA EURO (4.000 €) modu zuzenean ematea.

Hori dela eta, bi aldeek erabaki dute Idiazabalgo Udalak eta **IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA**k kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko 2017ko otsailaren 2an sinatutako hitzarmenaren ERANSKINA sinatzea, ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmen honen bitartez arautzen da zein baldintzatan emango dion diru laguntza Idiazabalgo Udalak **IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA**ri xede honetarako:

AXARI TRAIL mendiko lasterketa-Mikel Garmendia memorial-antolatzen laguntzeko, Euskal Mendizale Federazioarekin elkarlanean eta hainbat erakunde pribatuen babesarekin.

IDIAZABALGO KIROL ELKARTEAk ondoko betebeharrak izango ditu:

- Mendiko lasterketa Idiazabalgo udalerrian hastea eta bukatzea, irailean.
- Mendiko lasterketaren araudia onartzea, Euskal Mendizale Federazioak onartutako erregelamenduek ezartzen dituzten leku, data, ibilbide eta kategoriei buruzko baldintzei eta Eusko Jaurlaritzak eta Idiazabalgo Udalak kirol probei eskatzen dituzten baimenak eskatuz eta osasun-, segurtasun- eta ingurumen-baldintzak betez.
- Kirolarien eta herritarren artean lasterketari buruzko informazioa ematea eta zabaltzea, web orrietan, egunkarrietan, telebistan, sare sozialetan, etab
- Antolakuntzan hondakinen birziklapenaren aldeko ekintzak gauzatzea, besteak beste, edalontzi eta tresna berrehabiltzarriak zein hondakinak sailkatzeko ontzi egokiak erabiliz.
- Antolakuntzan mendia zein espazio eta instalakuntza publikoak modu egoki eta garbian erabiltzeko kanpaina egitea, baita udal-zerbitzuekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea ere, garbiketa-lanak ahalik eta lasterren hasteko eta bukatzeko.

Bigarrena. Horretarako, Idiazabalgo Udalak LAU MILA (4.000,00) euro jarriko ditu aurrekontuko 1.481.00.341.00 2017 "Transf. Arruntak. Idiazabal Kirol Elkarte" kontu izendapenaren kargura.

Diru laguntza bateragarria da helburu bereko beste edozein subentzio, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Diru laguntzaren guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduaren kostua gaindituko, ez banaka ez beste subentzio laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

Hirugarrena. Idiazabalgo Udalak diru laguntza ordainduko dio **IDIAZABAL KIROL ELKARTEA**ri: 2017ko martxoaren 20an ordainketa bakar baten bidez.

EUSKADIKO KUTXA IBAN ES09 3035 0199 07 1990015386

Laugarrena. **IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA**k jarduera guztien zuriketa aurkeztu beharko du 2017ko azaroaren 20a baino lehen, 2017ko otsailaren 20an sinatutako hitzarmenak xedatutakoaren arabera, eta eranskin honi atxikitzen zaizkion eredu normalizatua betez.

Bosgarrena. Eranskin honetan arautzen denaz gain, aplikatuko dira Idiazabalgo Udalak eta **IDIAZABALGO KIROL ELKARTEA**k kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko 2017ko otsailaren 2an sinatutako hitzarmena, azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra eta uztailearen

Idiazabalgo Udala
(GIPUZKOA)




21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Eta ados daudela frogatzeko, 2017ko otsailaren 2ko hitzarmenaren eranskina honen bi ale sinatzen dituzte, goi-buruan ageri diren lekuan eta egunean.

IDIAZABALGO ALKATE UDAL BURUA
Ioritz Imaz Baztarrika

IDIAZABAL KIROL ELKARTEA
Matias Aranburu Elorza



Nire aurrean,
IDIAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin